salaberria
& uzkudun

Registro Mercantil · Tomo 2.584 · Folio 160 · Hoja SS-35078 · CIF: B/75078717

KONTU-IKUSKARI INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO IKUSKARITZA-TXOSTENA

INFORME DE AUDITORIA EMITIDO POR AUDITOR INDEPENDIENTE

* * * * * * * * * *

# "FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DE DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN, SA"

■

# "FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DE DONOSTIA - SAN SEBASTIAN, S.A."

2021ko abenduaren 31an amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak

Cuentas Anuales correspondientes al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2021

SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.

Donostian, 2022ko martxoaren 16an

San Sebastián, a 16 de marzo de 2022

GRUPO mazarredo auditores

Avenida La Libertad, 25 2ºA · 20004 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 429 256 · Fax: 943 427 235 · www.salaberriayuzkudun.com

Protocolo SU – 2/22/A 2022

# KONTU-IKUSKARI INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO URTEKO KONTUEN IKUSKARITZA-TXOSTENA

# INFORME DE AUDITORIA DE CUENTAS ANUALES EMITIDO POR UN AUDITOR INDEPENDIENTE

## SOZIETATEKO AKZIODUNEI ZUZENDUA

## A LOS ACCIONISTAS DE LA SOCIEDAD

## "FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DE DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, SA"

■

## "FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DE DONOSTIA-SAN SEBASTIAN, S.A."

*Iritzia*

FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DE DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN, SA-ren (Sozietatea) urteko kontuak ikuskatu ditugu. Horien artean sartzen dira 2021ko abenduko 31ko balantzea eta data horretan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta egun horretan amaitutako ekitaldiaren memoria.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontuek irudi fidela erakusten dute, garrantzizko alderdi guztietan, Sozietatearen 2021ko abendua 31ko ondareari eta finantza-egoerari buruz, baita aipatutako datan bukatutako ekitaldi-urteko emaitzei buruz ere, aplikagarria den finantza-informazioaren esparru arauemaileari jarraiki (memoriaren 2. Oharra) eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipioei eta irizpideei.

*Opinión*

Hemos auditado las cuentas anuales de FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DE DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN, S.A. (la Sociedad), que comprenden el balance al 31 de diciembre de 2021, la cuenta de pérdidas y ganancias, el estado de cambios en el patrimonio neto y la Memoria correspondientes al ejercicio anual terminado a dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Sociedad a 31 de diciembre de 2021, así como de sus resultados correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación (que se identifica en la nota 2 de la memoria) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPUZCOA

**Iritziaren oinarria**

Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritzari buruzko araudiaren arabera egin dugu ikuskaritza. Arau horien inguruan ditugun erantzukizunak aurrerago azalduko dira, gure txosteneko atal honetan: «Ikuskariaren erantzukizuna urteko kontu-ikuskaritzari dagokionez».

Ez gaude Sozietateari lotuta, etika-eskakizunak kontuan hartuta, ezta, kontu-ikuskaritzari buruzko araudiak eskatzen duenaren arabera, Espainian gure urteko kontuen ikuskaritzari aplikagarriak zaizkion askatasun-eskakizunak kontuan hartuta ere. Ildo horretan, ez dugu ikuskaritzaren ingurukoa ez den zerbitzurik eman; eta, aipatutako araudian xedatutakoarekin bat etorriz, ez da gertatu behar den askatasunari kalte egin dion egoera edo gertaerarik.

Uste dugu lortu dugun ikuskaritza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen diola gure iritziari.

**Kontu-ikuskaritzaren alderdi garrantzitsuenak**

Ikuskaritzaren alderdi garrantzitsuenak, gure iritzi profesionalaren arabera, aldi honetako urteko kontuen gure ikuskaritzan akats material nabarmeneko arriskutzat hartutakoak dira. Arrisku horiek orokorrean tratatu dira gure urteko kontu-ikuskaritzaren testuinguruan eta horien inguruan dugun iritzian, eta ez dugu arrisku horien inguruko iritzi bereizirik adierazten.

**Fundamento de la opinión**

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España. Nuestras responsabilidades de acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la sección Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de cuentas anuales de nuestro informe.

Somos independientes de la Sociedad de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia aplicables a nuestra auditoría de las cuentas anuales en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de la auditoría de cuentas ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión.

**Aspectos más relevantes de la auditoría**

Los aspectos más relevantes de la auditoría son aquellos que, según nuestro juicio profesional, han sido considerados como los riesgos de incorrección material más significativos en nuestra auditoría de las cuentas anuales del periodo actual. Estos riesgos han sido tratados en el contexto de nuestra auditoría de las cuentas anuales en su conjunto, y en la formación de nuestra opinión sobre éstos, y no expresamos una opinión por separado sobre esos riesgos.

AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPUZCOA

Erabaki dugu ez dagoela gure ikuskaritza-txostenean jakinarazi beharreko bestelako arrisku garrantzitsurik.

Hemos determinado que no existen otros riesgos más significativos considerados en la auditoría que se deban de comunicar en nuestro informe de auditoría.

***Administratzaileen erantzukizuna urteko kontuekiko***

Administratzaileena da erantsitako urteko kontuak formulatzeko erantzukizuna eta haien bitartez Sozietatearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela ematekoa, erakundeari Espainian aplikagarri zaion finantza-informazioari buruzko arau-esparruan ezarritakoa betez (erantsitako memoriaren 2. oharrean dago identifikatuta), baita iruzurra edo errorea dela-eta akats materialik izango ez duten urteko kontuak prestatu ahal izateko beharrezkotzat jotako barne-kontroleko araudiari jarraiki ere.

Urteko kontuen prestaketan, administratzaileen erantzukizuna da Sozietateak funtzionamenduan jarraitzeko duen gaitasuna baloratzea, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin loturiko kontuak erakutsiz eta funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz, salbu eta administratzaileek sozietatea likidatzeko edo operazioak uzteko intentzioa badute, edo beste alternatiba errealista bat badago.

***Responsabilidad de los administradores en relación con las Cuentas Anuales***

Los Administradores son responsables de la formulación de las Cuentas Anuales adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de la Sociedad, de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, que se identifica en la Nota 2.- de la memoria adjunta, y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales libres de incorrección material, debida a fraude o error.

En la preparación de las Cuentas Anuales, los administradores son responsables de la valoración de la capacidad de la Sociedad para continuar como empresa en funcionamiento, revelando, según corresponda, las cuestiones relacionadas con empresa en funcionamiento y utilizando el principio contable de empresa en funcionamiento excepto si los administradores tienen intención de liquidar la sociedad o de cesar sus operaciones, o bien no exista otra alternativa realista.

***Kontu-ikuskariaren erantzukizuna urteko kontuen ikuskaritzari dagokionez***

Gure helburuak hauek dira: urteko kontuek iruzur edo errore baten ondorioz akatsik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea, eta gure iritzia duen ikuskaritza-txostena igortzea.

***Responsabilidad del auditor en relación con la auditoría de las Cuentas Anuales***

Nuestros objetivos son obtener una seguridad razonable de que las Cuentas Anuales en su conjunto están libres de incorrección material, debida a fraude o error, y emitir un informe de auditoría que contiene nuestra opinión.

AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPUZCOA

Arrazoizko segurtasuna maila altuko segurtasuna da, baina horrek ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen ikuskaritzari buruzko araudiaren arabera egindako ikuskaritzak akats materialak beti detektatuko dituenik, halakorik egonez gero. Akatsak iruzur edo errore baten ondoriozkoak izan daitezke, eta akats materialtzat jotzen dira, indibidualki edo modu agregatuan, erabiltzaileek, urteko kontuetan oinarrituta, hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragina izan dezaketela aurreikusten bada modu arrazoizko batean.

Seguridad razonable es un alto grado de seguridad, pero no garantiza que una auditoría realizada de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría vigente en España siempre detecte una incorrección material cuando existe. Las incorrecciones pueden deberse a fraude o error y se consideran materiales si, individualmente o de forma agregada, puede preverse razonablemente que influyan en las decisiones económicas que los usuarios toman basándose en las Cuentas Anuales.

Ikuskaritza-txosten honen I. eranskinean zehatzago deskribatzen dira urteko kontuen ikuskaritzaren inguruan ditugun erantzukizunak. Deskribapen hori, zeina 5. eta 6. orrialdeetan dagoen, gure ikuskaritza-txostenaren barruan sartzen da.

En el Anexo I de este informe de auditoría se incluye una descripción más detallada de nuestras responsabilidades en relación con la auditoría de las Cuentas Anuales. Esta descripción que se encuentra en las páginas 5 y 6, es parte integrante de nuestro informe de auditoría.

**SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.**
Miembro nº S-2240 del Registro Oficial de Auditoría de Cuentas
Kontu Ikuskarien Erregistro Ofizialeko S-2240 zenbakiko kidea

Avenida de La Libertad, 25 2ºA. 20004 Donostia-San Sebastián
Askatasunaren Hiribidea, 25; 2. A 20004 Donostia

AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPUZCOA

**Sin./Fdo.: JORGE CABIA AGUSTÍN**
San Sebastián, 16 de marzo de 2022
Donostia, 2022ko martxoaren 16an

AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA

SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.

2022 Núm. 03/22/01098

SELLO CORPORATIVO: 96,00 EUR

Informe de auditoría de cuentas sujeto a la normativa de auditoría de cuentas española o internacional

**Gure ikuskaritza-txostenaren I. eranskina**

Espainiako kontu-ikuskaritzari buruzko araudiarekin bat datorren ikuskaritzaren zati izanik, ikuskaritza osoan, iritzi profesionala aplikatu, eta jarrera eszeptikoa mantentzen dugu. Horrez gain:

- Urteko kontuen akats materialeko arriskuak identifikatzen eta baloratzen ditugu, bai iruzurren ondoriozkoak bai erroreen ondoriozkoak. Arrisku horiei erantzuna emateko, ikuskaritza-prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu, eta, gure iritzia oinarritzeko, ikuskaritza-ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu. Iruzurraren ondoriozko akats materialak ez detektatzeko arriskua, errore baten ondoriozko akats material bat detektatzea baino handiagoa da; izan ere, iruzurren kasuan, kolusioa, faltsifikazioa eta nahita egindako hutsegite eta adierazpen okerrak egon daitezke, eta barne-kontrolari itzuri egitea ere gerta daiteke.

- Ikuskaritzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagutza ez dugu erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunaren inguruko iritzia emateko helburuarekin eskuratzen, baizik eta, egoera zein den kontuan hartuta, egokiak diren ikuskaritza-prozedurak diseinatzeko.

- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren ebaluatzen dugu, bai eta administratzaileek jakinarazitako informazioa eta kontabilitate-kalkuluak arrazoizkoak diren ere.

- Bukatzeko, administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa era egokian erabiltzen duten adierazten dugu; eta, eskuratutako ikuskaritza-ebidentzian oinarrituta, Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa gisa jarraitzeko duen gaitasunari buruzko zalantza nabarmenak sor ditzaketen egintza edo baldintzekin loturiko

**Anexo I de nuestro informe de auditoría**

Como parte de una auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas en España, aplicamos nuestro juicio profesional y mantenemos una actitud de escepticismo profesional durante toda la auditoría. También:

- Identificamos y valoramos los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales, debida a fraude o error, diseñamos y aplicamos procedimientos de auditoría para responder a dichos riesgos y obtenemos evidencia de auditoría suficiente y adecuada para proporcionar una base para nuestra opinión. El riesgo de no detectar una incorrección material debida a fraude es más elevado que en el caso de una incorrección material debida a error, a que el fraude puede implicar colusión, falsificación, omisiones deliberadas, manifestaciones intencionadamente erróneas, o la elusión de control interno.

- Obtenemos conocimiento del control interno relevante para la auditoría con el fin de diseñar procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad.

- Evaluamos si las políticas contables aplicadas son adecuadas y la razonabilidad de las estimaciones contables y la correspondiente información revelada por los administradores.

- Concluimos sobre si es adecuada la utilización, por los administradores, del principio contable de empresa en funcionamiento y, basándonos en la evidencia de auditoría obtenida, concluimos sobre si existe o no una incertidumbre material relacionada con hechos o con condiciones que pueden generar dudas significativas sobre la capacidad de la

AUDITORES
REGISTRO OFICIAL DE AUDITORES DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPUZCOA

ziurgabetasun materiala dagoen ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun materiala dagoela ondorioztatzen badugu, gure ikuskaritza-txostenean azpimarratu beharra daukagu urteko kontuetan jakinarazitako informazioa; eta informazio hori ez bada egokia, iritzi aldatua eman behar dugu. Gure ondorioak gure ikuskaritza-txostenaren egunera bitartean lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala, bada, geroagoko egintzak edo baldintzak Sozietate hori funtzionamenduan dagoen enpresa izateari uzteko arrazoia izan daitezke.

Sociedad para continuar como empresa en funcionamiento. Si concluimos que existe una incertidumbre material, se requiere que llamemos la atención en nuestro informe de auditoría sobre la correspondiente información revelada en las cuentas anuales o, si dichas revelaciones no son adecuadas, que expresemos una opinión modificada. Nuestras conclusiones se basan en la evidencia de auditoría obtenida hasta la fecha de nuestro informe de auditoría. Sin embargo, los hechos o condiciones futuros pueden ser la causa de que la Sociedad deje de ser una empresa en funcionamiento.

• Aurkezpen orokorra ebaluatzen dugu, bai eta urteko kontuen egitura eta edukia ere, jakinarazitako informazioa barne. Horrez gain, urteko kontuek azpiko egintzak eta transakzioak irudi fidela erakusteko moduan irudikatzen dituzten ebaluatzen dugu.

• Evaluamos la presentación global, la estructura y el contenido de las cuentas anuales, incluida la información revelada, y si las cuentas anuales representan las transacciones y hechos subyacentes de un modo que logran expresar la imagen fiel.

Sozietateko administratzaileekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, planifikatutako ikuskaritza egiteko unearen eta irismenaren berri emateko, eta, ikuskaritzan aurkikuntza garrantzitsurik izanez gero, horren berri emateko, eta ikuskaritzan zehar identifikatzen dugun barne-kontroleko edozein urritasun nabarmen jakinarazteko.

Nos comunicamos con los administradores de la Sociedad en relación con, entre otras cuestiones, el alcance y el momento de realización de la auditoría planificados y los hallazgos significativos de la auditoría, así como cualquier deficiencia significativa del control interno que identificamos en el transcurso de la auditoría.

Sozietateko administratzaileei jakinarazi zaizkien arrisku garrantzitsuenen artean, ekitaldi honetako urteko kontuen ikuskaritzan nabarmenenak izan direnak zehazten ditugu; ondorioz, horiek dira nabarmentzat hartzen ditugun arriskuak.

Entre los riesgos significativos que han sido objeto de comunicación a los administradores de la Sociedad, determinamos los que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales del periodo actual y que son, en consecuencia, los riesgos considerados más significativos.

Gure ikuskaritza-txostenean deskribatzen ditugu arrisku horiek, baldin eta legezko edo erregelamenduzko xedapenek publikoki ezagutaraztea debekatzen ez badute.

Describimos esos riesgos en nuestro informe de auditoria salvo que las disposiciones legales o reglamentarias prohíban revelar públicamente la cuestión.

AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPUZCOA

SSIFF Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

# URTEKO KONTUAK

## 2021ko EKITALDIA

AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS
DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPÚZCOA

# ETEen EGOERA BALANTZEA

2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagokiona

(eurotan)

| AKTIBOA | Oharrak Memoriari | 21.12.31 | 20.12.31 |
|---|---|---|---|
| A) AKTIBO EZ-KORRONTEA | | 525.708,02 | 607.860,20 |
| II. Ibilgetu materiala | 5 | 67.858,60 | 85.375,16 |
| V. Finantza-inbertsioak epe luzera | 6.1.1 | 457.849,42 | 522.485,04 |
| B) AKTIBO KORRONTEA | | 1.166.125,25 | 1.178.921,81 |
| I. Izakinak | | 1.985,00 | 4.358,72 |
| II. Zordun komertzialak eta kobratzeko beste kontu batzuk | 6.1.2 eta 9.1.1 | 1.001.668,79 | 766.838,64 |
| 3. Bestelak zordunak | | 1.001.668,79 | 766.838,64 |
| IV. Finantza-inbertsioak epe motzera | 6.1.2 | 64.902,73 | 64.896,21 |
| VI. Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk | | 97.568,73 | 342.828,24 |
| AKTIBOA GUZTIRA (A+B) | | 1.691.833,27 | 1.786.782,01 |

AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPÚZCOA

# ETEen EGOERA BALANTZEA

2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagokiona

(eurotan)

| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA | Oharrak Memoriari | 21.12.31 | 20.12.31 |
|---|---|---|---|
| A) ONDARE GARBIA | | 507.606,32 | 513.723,52 |
| A-1) Funts propioak | 8 | 496.239,62 | 494.902,03 |
| I. Kapitala | | 242.800,00 | 242.800,00 |
| 1. Kapital eskrituratua | | 242.800,00 | 242.800,00 |
| III. Erreserbak | | 252.102,03 | 242.270,52 |
| VII. Ekitaldiaren emaitzak | | 1.337,59 | 9.831,51 |
| A-3) Diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak | 11 | 11.366,70 | 18.821,49 |
| B) PASIBO EZ KORRONTEA | | 267.044,93 | 408.788,00 |
| II. Epe luzerako zorrak | 7.1 | 263.455,46 | 402.844,39 |
| 1. Kreditu-erakundeekiko zorrak | | 263.455,46 | 402.844,39 |
| IV. Zerga atzeratzeagatiko pasiboak | 9.2 | 3.589,47 | 5.943,61 |
| C) PASIBO KORRONTEA | | 917.182,02 | 864.270,49 |
| I. Hornidurak epe laburrera | | 75.528,93 | 151.205,52 |
| II. Epe laburreko zorrak | 7.2 | 450.430,93 | 199.812,02 |
| 1. Kreditu-erakundeekiko zorrak | | 450.430,93 | 199.812,02 |
| IV. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko beste kontuak | 7.2 eta 9.1.2 | 365.189,86 | 513.252,95 |
| 1. Hornitzaileak | | | |
| b) Hornitzaileak epe motzera | | 4.596,30 | 4.101,00 |
| 2. Beste hartzekodun batzuk | | 360.593,56 | 509.151,95 |
| V. Periodifikazioak epe motzera | 7.2 | 26.032,30 | - |
| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+B+C) | | 1.691.833,27 | 1.786.782,01 |



AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPÚZCOA

# ETEen GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA

**2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagokiona**

**(eurotan)**

| (ZOR) / HARTZEKO | Oharrak Memoriari | 2021 ekitaldia | 2020 ekitaldia |
|---|---|---|---|
| 1. Negozio-zifraren zenbateko garbia | | 799.373,79 | 603.823,30 |
| 4. Hornikuntzak | | (1.404.101,17) | (1.562.340,90) |
| 5. Bestelako ustiapen-sarrerak | 10.1 | 6.921.582,28 | 6.776.438,30 |
| 6. Langileen gastuak | | (2.878.059,91) | (2.668.253,34) |
| 7. Bestelako ustiapen-gastuak | 10.2 | (3.467.316,73) | (3.131.298,84) |
| 8. Ibilgetuaren amortizazioa | 5 | (17.516,56) | (17.516,56) |
| 10. Geihegizko hornidurak | | 20.466,90 | (15.485,86) |
| 11. Bestelako emaitzak | 10.2 | 30.121,23 | 28.225,96 |
| **A) USTIAPENAREN EMAITZA (1+4+5+6+7+8+10+11)** | | **4.549,83** | **13.592,06** |
| 12. Finantza-sarrerak | | 14.733,80 | 18.267,43 |
| 13. Finantza-gastuak | | (17.653,46) | (21.531,28) |
| **B) EMAITZA FINANTZAROA (12+13)** | | **(2.919,66)** | **(3.263,85)** |
| **C) EMAITZA ZERGEN AURRETIK (A+B)** | | **1.630,17** | **10.328,21** |
| 17. Sozietate gaineko zergen gastua | 9.3 | (292,58) | (496,70) |
| **D) EKITALDIAREN EMAITZA ( C)** | | **1.337,59** | **9.831,51** |



AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPÚZCOA

# ETEen ONDARE GARBIAN EGINDAKO ALDAKETEN EGOERA OSOA

**2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagokiona**

(eurotan)

| | Kapitala Eskrituratua I | Erreserbak | Ekitaldiaren emaitza | Diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| **SALDO DOIA, 2019. URTEAREN BUKAERAN** | **242.800,00** | **240.592,47** | **1.678,05** | **28.049,52** | **513.120,04** |
| **SALDO DOIA, 2020. URTEAREN HASIERAN** | **242.800,00** | **240.592,47** | **1.678,05** | **28.049,52** | **513.120,04** |
| I. Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira | - | - | 9.831,51 | - | **9.831,51** |
| II. Ondare garbian aitortutako sarrerak eta gastuak | - | - | - | (9.228,03) | **(9.228,03)** |
| IV. Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk | - | 1.678,05 | (1.678,05) | - | - |
| **SALDOA, 2020. URTEAREN BUKAERAN** | **242.800,00** | **242.270,52** | **9.831,51** | **18.821,49** | **513.723,52** |
| **SALDO DOIA, 2021. URTEAREN HASIERAN** | **242.800,00** | **242.270,52** | **9.831,51** | **18.821,49** | **513.723,52** |
| I. Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira | - | - | 1.337,59 | - | **1.337,59** |
| II. Ondare garbian aitortutako sarrerak eta gastuak | - | - | - | (7.454,79) | **(7.454,79)** |
| IV. Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk | - | 9.831,51 | (9.831,51) | - | - |
| **SALDOA, 2021. URTEAREN BUKAERAN** | **242.800,00** | **252.102,03** | **1.337,59** | **11.366,70** | **507.606,32** |

AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIAN-GUIPÚZCOA

*2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren*
*ETEen memoria*

## 1. OHARRA.- SOZIETATEAREN JARDUERA.-

**Festival Internacional de Cine de Donostia-San Sebastián, E.A.** (aurrerantzean Zinemaldia) sozietate anonimo bezala sortu zen 1990eko abenduaren 21ean, eta sortu zenetik ez da bere izen soziala aldatu.

Bere egoitza soziala Donostian dago, Andre Zigarrogileen plaza 1- 2. solairua, TABAKALERA, Centro Internacional de Cultura Contemporánea.

Bere objektu soziala urtero Donostiako zinemaldia burutzea da, baita hedapen zinematografikorako beste agerpen eta jarduera batzuk sustatzea, sortzea eta gauzatzea ere.

Sozietateak, bere jarduera kontuan hartuta, ez du ingurumenari dagokionez erantzukizunik, gasturik, aktiborik, hornidurarik zein arriskurik; ez behintzat sozietatearen ondareari, finantza-egoerari eta emaitzei dagokienez adierazgarria izan litekeenik. Horregatik,urteko kontuen memoria honetan ez dago jasota ingurumen informazioari buruzko banakapen espezifikorik.

## 2. OHARRA.- URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK.-

### 2.1.- Irudi zintzoa

Konpainiaren kontabilitate-erregistroak oinarri hartuta prestatu dira Urteko Kontuak, eta azaroaren 16ko 1515/07 Errege Dekretuan bildutako Enpresa Txikien eta Ertainen Kontularitzarako Plan Orokorraren arabera aurkeztu dira, Sozietatearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi ahalik eta zintzoena erakutsiz.

Atxikitako urteko kontuak Akziodunen Batzar Nagusiak onartu beharko ditu, eta, espero dugunaren arabera, batere aldaketarik gabe onartuko dituzte.

Aurreko ekitaldiko urteko kontuak 2021eko martxoaren 17ko Akziodunen Batzar Nagusiak onartu zituen.



AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPÚZCOA

### 2.2.- Derrigorrezkoak izan gabe aplikatu diren kontabilitate-printzipioak

Sozietatearen urteko kontuak aurkezteko aplikatu diren kontabilitate-printzipioak eta irizpideak memoriaren 4. oharrean biltzen dira, eta ez da aplikatu derrigorrezkoa ez den printzipiorik.

### 2.3.- Ziurgabetasunaren balorazioaren eta estimazioaren alderdi kritikoak

Sozietateak martxan den enpresaren printzipioaren arabera osatu ditu bere finantza-egoerak, eta ez dago hurrengo ekitaldian aktiboen edo pasiboen balioari aldaketa nabarmenak eragin diezaiokeen arriskurik.

### 2.4.- Informazioaren konparazioa

Urteko kontuek 2021eko eta aurreko urteko zifrak aurkezten dituzte alderatu ahal izateko, egoera balantzeko, galera eta irabazien kontuko eta ondare garbiaren aldaketen egoera orriko partida bakoitzarentzako. Era berean, memoria honetan 2021eko ekitaldiko informazioa 2020ko ekitaldikoekin alderatuta dago aurkeztuta.

Elkarteak 2021eko eta 2020ko ekitaldietako urteko kontuak ikuskatzeko obligazioa du. 2020ko ekitaldia ikuskatuta dago eta 2021ekoa ikuskatuko da.

### 2.5. - Diru-partidak elkartzea

Egoeraren balantzean ez dago, ezta galeren eta irabazien kontuan ere, memoriaren barruan dagokion atalean erakutsitako banantzeaz gainera banantze osagarria behar duen diru-partida elkarturik.

### 2.6.- Hainbat diru-partidatan bildutako osagaiak

Balantzean ez dago hainbat diru-partidatan bildutako osagairik.

### 2.7.- Aldaketak kontabilitate-irizpideetan

Kontabilitate irizpideetan ez da aldaketa handirik gertatu 2021eko ekitaldian, aurreragoko ekitaldian aplikatutako irizpideekin alderatuta.



AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPÚZCOA

### 2.8. - Akatsak zuzentzea

2021eko urteko kontuetan ekitaldian zehar ez da aurreko ekitaldietan sortu baina egungoan aurkitu diren akatsen zuzenketarik egin.

### 2.9.- Garrantzi erlatiboa

Memoria honetan finantza-egoeren edo beste gai batzuen partidei buruz xehatu beharreko informazioa zehazterakoan, Sozietateak, Kontabilitate Plan Orokorraren kontzeptu-esparruarekin bat, 2021eko urteko kontuekiko garrantzi erlatiboa hartu du aintzat.

## 3. OHARRA.- EMAITZEN APLIKAZIOA

Administrazio Kontseiluak emaitzen banaketa hau proposatuko dio Akziodunen Batzar Orokorrari, hark onar dezan:

| Banaketaren oinarria | Ek. 2021 |
|---|---|
| Galerak eta irabaziak | 1.337,59 |
| **Guztira** | **1.337,59** |

| Banaketa | Ek. 2021 |
|---|---|
| Nahitako Erreserbetara | 1.337,59 |
| **Guztira** | **1.337,59** |

2020ko ekitaldiko emaitzaren banaketa proposamena honako hau izan zen:

| Banaketaren oinarria | Ek. 2020 |
|---|---|
| Galerak eta irabaziak | 9.831,51 |
| **Guztira** | **9.831,51** |

| Banaketa | Ek. 2020 |
|---|---|
| Nahitako Erreserbetara | 9.831,51 |
| **Guztira** | **9.831,51** |



AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPÚZCOA

## 4. OHARRA.- ERREGISTRO ETA BALORAZIO ARAUAK.-

Honako hauek dira aplikatu diren kontabilitate-irizpideak:

### 4.1. – Ibilgetu ukiezina

Hasieran, ibilgetu ukiezina bere kostuaren arabera zenbatesten da; kostu hori erositakoan ordaindutako prezioa edo ekoizpen kostua izan daiteke. Hasierako balorazioaren ostean, ibilgetu ukiezina bere kostuagatik zenbatesten da, betiere metatutako amortizazioa kenduta, baita, hala badagokio, hondatzeak konpontzeko erabilitako zenbatekoa kenduta ere.

Ibilgetu ukiezin bakoitzaren balio-bizitza definitua edo definitu gabea den ere aztertu eta zehazten da.

Balio-bizitza definitua duten ibilgetu ukiezinak sistematikoki amortizatzen dira, zenbatetsi zaien balio-bizitzaren eta hondar-balioaren arabera. Aplikatutako amortizazio metodo eta aldiak ekitaldi bakoitzaren itxieran berraztertzen dira eta, beharrezkoa bada, etorkizunera begira egin beharreko aldaketak egiten dira. Ekitaldiaren itxieran, gutxienez, hondatze zantzuak dauden balioztatzen da; horrela izanez gero, berreskura daitezkeen zenbatekoak zenbatesten dira, egin beharreko balorazio zuzenketak eginez.

- **Aplikazioa informatikoak**

  Sozietatearen gestio egiteko oinarrizkoak diren sistema informatikoak erosteko eta garatzeko egin diren gastuei dagozkie. Aplikazio informatikoen amortizazioa linealki egiten da, bost urteko epean, aplikazio bakoitza ustiatzen hasten denetik zenbatzen hasita eta dagoeneko guztiz amortizatutak daude.

  Sistema informatikoen mantentze-lanen ondoriozko kostuak lan egiten diren ekitaldiari dagozkien emaitzei egozten zaizkie.

- **Jabetza industriala**

  Zinemaldiak, Fundazioari egiten dion izena, bere filmoteka eta abarren erosketa da. Hamar urteko epean amortizatzen da, eta dagoeneko guztiz amortizatuta dago.



AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPÚZCOA

### 4.2.– Ibilgetu materiala

Haren erosketa prezioa edo ekoizpen kostua zenbatesten da; zenbatetsitako balioak, prezioan izandako balizko edozein beherapen murriztu ondoren fakturatutako prezioaz gain, funtzionamenduan izan arteko gastu osagarri guztiak hartzen ditu kontuan, adibidez lur-berdinketarekin eta eraispenarekin, garraioarekin, aseguruekin, instalazioekin edo muntaketarekin zuzenki lotutakoak. Erabiltzeko, ustiatzeko edo saltzeko moduan izan arte urtebete baino gehiago behar duen ibilgetu materialaren kostuan, erosketari, eraikuntzari edo ekoizpenari zuzenki egozgarriak zaizkion finantzazio espezifiko edo generikoaren gastu finantzarioak ere sartzen ditu Sozietateak. Ibilgetu materialaren balioaren parte dira, halaber, eraispenaren edo erretiratzearen ondorioz hartutako betebeharren egungo balioaren hasierako zenbatespena eta aktiboarekin lotutako beste batzuk, adibidez birgaitze kostuak, betiere betebehar horiek hornigaien erregistroa eragiten dutenean.

Sozietateak ez du eraispen, erretiratze edo birgaitze konpromisorik bere aktiboko ondasunentzat. Hori dela-eta, aktiboetan ez da kontabilizatu etorkizuneko balizko betebehar horiek estaltzeko baliorik.

Ibilgetu materialeko elementu baten hondatzeak eragindako balio galera bere balio neto kontableak bere zenbateko berreskuragarria gainditzen duenean erregistratzen da; zenbateko berreskuragarritzat ondasunaren zentzuzko balioaren salmenta kostuak kenduta eta erabilpen balioaren arteko zenbateko altuena hartzen dugu.

Ekitaldian zehar Sozietateak egindako obra eta konponketetako gastuak dagokion gastuen kontuetan kargatuko dira. Ekoizpen gaitasuna areagotzen duten edo ondasunen bizitza erabilgarria luzatzen duten handitze edo hobekuntza gastuak aktiboan jasotzen dira bere balioa handitzen dutelako. Ibilgetu materialaren uneko kontuak gastu horien zenbatekoagatik kargatzen dira, Sozietateak bere buruarentzako egiten dituen lanak biltzen dituen sarrerako aurrekontu-sailean abonatuz.

Ibilgetu materialaren elementuen amortizazioa funtzionamenduan jartzeko eskuragarri dauden unetik bertatik egiten dira, betiere zenbatetsitako bizitza erabilgarrian zehar modu linealean banatuz eta hondar-balio nulua zenbatetsiz honako bizitza erabilgarriak urteen arabera:

| Deskribapena | Urteak | | | |
|---|---|---|---|---|
| Beste Instalazioak | 10 | | | |
| Higigarriak | 10 | | | |
| Ekipo Prozesu Informatikoak | 4 | | | |
| Garraio elementuak | 6 | | | |
| Beste ibilgetu batzuk | 4 | 5 | 6,6 | 10 |



AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPÚZCOA

### 4.3. - Finantza-tresnak

Sozietateak finantza-aktiboei dagokien atalean erregistratuta ditu enpresa batean finantza-aktibo bat sortzen duten kontratuak, eta aldi berean, beste enpresa batean finantza-pasibo bat edo ondasun-tresna bat sortzen dutenak. Beraz, hauexek dira finantza-tresnak dauden moten arabera:

a) Finantza-aktiboak:

- Eskudirua eta beste aktibo likido baliokideak.
- Kredituak, Deribatuak eta bestelakoak:
  - Merkataritza-eragiketen ondoriozko kredituak: bezeroak eta askotariko zordunak.
  - Hirugarrenei egindako kredituak: hala nola, emandako finantza-maileguak eta -kredituak, baita aktibo ez-korronteen salmentatik sortuak ere.
  - Bestelako finantza-aktiboak: gordailuak kreditu erakundeetan, langileentzako aurrerakinak eta kredituak, fidantzak eta eratutako gordailuak, dibidenduak kobratzea eta ondare propioaren tresnen gaineko ordainketa eskatuak.
  - Enpresarentzat aldeko balorazioa duten deribatuak: besteak beste, etorkizunekoak, aukerak, finantza-trukeak eta atzerriko dibisen epeko salerosketa, eta
- Zorra adierazten duten baloreak
  - Beste enpresa batzuen zorra adierazten duten balore eskuratuak: obligazioak, bonuak eta ordaindukoak, esaterako.
- Ondare tresnak:
  - Beste enpresa batzuen ondare tresna eskuratuak: akzioak, inbertsio kolektibo erakundeetako partaidetzak eta beste zenbait ondare tresna.

b) Finantza-pasiboak:

- Kreditu erakundeekiko zorrak:
  - Kreditu erakundeekiko zorrak.
- Obligazioak eta beste balore negoziagarri batzuk:
  - Obligazioak eta beste balore negoziagarri batzuk: bonuak eta ordaindukoak, esaterako.



AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPÚZCOA

- Eratorriak eta beste:
  - Merkataritza-eragiketen ondoriozko zorrak: hornitzaileak eta hartzekodunak.
  - Enpresarentzat kontrako balorazioa duten deribatuak: besteak beste, etorkizunekoak, aukerak, finantza-trukeak eta atzerriko dibisen epeko salerosketa.
  - Ezaugarri bereziko zorrak, eta
  - Beste finantza-pasibo batzuk: zorrak hirugarrengoekin, hala nola kreditu-erakunde ez diren pertsonengandik edo enpresengandik jasotako maileguak eta finantza-kredituak, horien barne aktibo ez-korronteak erostean sortuak, jasotako fidantzak eta deposituak eta hirugarrengoek partaidetzen gainean eskatutako ordainketak.

c) Sozietatearen ondarearen tresnak: funts berekien barruan sartutako finantza-tresna guztiak, hala nola jaulkitako ohiko akzioak.

*4.3.1.– Epe luze eta motzeko finantza inbertsioak*

- Maileguak eta kobratzeko kontuak: kostu amortizatuan erregistratzen dira. Maileguen kasuan, emandako eskudiruari dagokio, horri nagusiaren gainean egindako itzuliak kenduta eta kobratu gabeko interes sortuak gehituta. Kobratzeko kontuen kasuan, egindako ordainaren gaur egungo balioari dagokio. Sozietateak dagozkion hornidurak erregistratzen ditu berreskuratzeko duen zenbatekoaren eta liburuetan erregistratuta duten balioaren arteko aldearen arabera.

- Epemuga bitartean mantendutako inbertsioak: zorraren adierazgarri diren balioak, epemuga finkoa dutenak, merkatu aktibo batean negoziatzen diren eta Sozietateak epemuga iritsi arte gordetzeko asmoa eta gaitasuna duen zenbateko mugatuen edo muga daitezkeenen kobrantza. Kostua amortizatzen denean kontabilizatzen dira.



AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPÚZCOA

- Inbertsioak taldeko enpresetan, enpresa elkartuetan edo enpresa taldeaniztunean.

  - Salmentarako libre dauden inbertsioak: aurreko lau kategoriatan sartzen ez diren gainerako inbertsioak. Kapitaleko finantza-inbertsioei dagokie ia erabat, % 20tik beherako inbertsioarekin. Inbertsio horiek erantsitako egoera-balantzean agertzen dira, arrazoizko balioarekin, baldin eta modu fidagarrian zehatz badaitezke. Kotizatu gabeko sozietateetako partaidetzei dagokienez, oro har, merkatuko balioa ezin da modu fidagarrian zehaztu, horregatik, hori gertatzen denean, erosketa-kostuaren arabera baloratzen dira edo, bestela, zenbateko txikiago baten arabera, gauza ziurra bada hiru hilabeteko epean baino gutxiagoan narria daitekeela.

*4.3.2.- Finantza-pasiboak*

Maileguak, obligazioak eta antzekoak jasotako zenbatekoaren arabera erregistratzen dira hasieran, transakzioan egindako kostuetatik garbi. Finantza-gastuak, kitapenean edo itzultzean ordaintzeko sariak eta transakzioaren kostuak barne, galeren eta irabazien kontuan kontabilizatzen dira, sortzapenaren irizpidearen arabera eta interes efektiboaren metodoa erabiliz.

Sortu den eta kitatu ez den zenbatekoa liburuetan tresnak duen zenbatekoari eransten zaio, baldin eta ez badira sortutako aldian kitatzen.

Ordaindu beharreko kontuak merkatuko kostuaren arabera erregistratzen dira hasieran, eta ondoren, kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira, interes efektiboaren tasaren metodoa erabiliz.

**4.4.- Epe luzerako periodifikazioak**

Epe luzera kobratzeko kontuak kostu amortizatuan onartzetik eratorritako finantza interesak biltzen ditu. Interes horiek emaitzetan jasotzen joango dira, finantza irizpideen arabera.

**4.5. - Izakinak**

Partida hau Sozietateak emandako sariek osatzen dute, beren kostu prezioan baloratuta.



AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPÚZCOA

**4.6. - Mozkinen gaineko zergak.**

Zerga korronteen ondoriozko gastua zehazteko zerga korrontearen ondoriozko gastuari geroratutako zerga gehitzen zaio. Zerga korrontearen ondoriozko gastua zehazteko zerga-irabaziari indarrean den zerga-tipoa aplikatzen zaio, eta era horretara lortutako emaitza murriztu egiten da hobari eta kenkari orokorren eta ekitaldian aplikatuetan zenbatekoan.

Geroratutako zergen aktiboak eta pasiboak etorkizunean berreskuragarri eta ordaingarri diren zenbateko gisa definitutako aldi baterako desberdintasunetatik datoz, eta aktiboen zein pasiboen liburuetan duten balioaren desberdintasunaren eta beren zerga-oinarriaren artetik eratorriak dira. Zenbateko horiek erregistratzeko, berreskuratzea edota kitatzea espero den karga tasa aplikatzen zaio aldi baterako desberdintasunari.

Geroratutako zergengatiko pasiboa aldi baterako diferentzia-oinarri guztietarako aintzatesten da, nola eta aldi baterako ezberdintasuna ez den merkataritza funts baten hasierako aintzatespenetik edota hasierako aintzatespenetik deribatua, beste aktibo eta pasibo batzuen negozio konbinazioa ez den transakzio batean egiteko garaian zerga edota kontabilitate emaitzari eragiten ez dion eragiketa batean.

Bestalde, geroratutako zergengatiko aktiboak, aldi baterako desberdintasun kengarriekin identifikaturik, aintzatetsiko dira baldin eta pentsatzekoa bada elkarteak etorkizunean zerga-irabazi nahikoak izango dituela haien kontra efektibo egiteko, eta ez badira beste aktibo eta pasibo batzuen hasierako aintzatespenetik sortuak negozio-konbinazioa ez den eragiketa batean, eta ez badio eragiten zerga-emaitzari edota kontabilitate-emaitzari. Geroratutako zergengatiko gainerako aktiboak (zerga-oinarri negatiboak edota konpentsatzeke dauden kenkariak) aintzatetsiko dira, baldin eta pentsatzekoa bada elkarteak etorkizunean efektiboak egiteko beste zerga-irabazi edukiko dituela etorkizunean.

Kontabilitate amaiera bakoitzean erregistratutako geroratutako zergak berrikusten dira (bai aktiboak, bai pasiboak), indarrean jarraitzen dutela egiaztatzeko; hala, egin beharreko zuzenketak egingo zaizkie, lortutako analisien emaitzekin bat.

Geroratutako zergaren gastua edota sarrera geroratutako zergengatiko pasiboen eta aktiboen aintzatespenarekin edota ezeztatzearekin bat dator, bai eta, hala badagokio, diru-laguntza gisa har daitezkeen kenkariak eta bestelako zerga-abantailak kontabilizatzearen ondorioz sor litezkeen ondare garbiari zuzenean egotzitako sarreraren galera eta irabazien kontura aintzatesteagatik eta inputatzeagatik ere.



AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA
SALABERRIA Y UZKUDUN, S.L.P.
R.O.A.C. nº S2240
SAN SEBASTIÁN-GUIPÚZCOA

### 4.7.- Diru-sarrerak eta gastuak

Diru-sarrerak eta gastuak irabazkinaren irizpidearen arabera egozten dira, horien ondoriozko moneta- edo finantza-korrontea zer unetan gertatzen den kontuan hartu gabe.

Edonola ere, Sozietateak ekitaldiaren itxiera-datan lortutako etekinak baino ez ditu kontabilizatzen, eta aurrez ikus daitezkeen arriskuak eta galerak, behin behinekoak izanda ere, ezagutu bezain pronto kontabilizatzen dira.

Ondasunen edo zerbitzuen salmentaren ondoriozko diru-sarrerak horien ondorioz jaso den edo jasoko den ordainaren arrazoizko balioaren arabera ezagutzen dira. Goiz ordaintzearen ondoriozko beherapenak, bolumenaren ondoriozkoak edo bestelakoak, eta kredituen nominalari erantsitako interesak, horien murriztapen gisa erregistratzen dira. Halere, Sozietateak eransten ditu urtebetetik gorako epemuga ez duten eta kontratuzko interesik ez duten merkataritza-kredituei erantsitako interesak, baldin eta eskudiru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa ez bada adierazgarria.

Bezeroei onartutako beherapenak salmenten ondoriozko diru-sarreren beherapentzat hartzen dira, onespena erabakitzen duten baldintzak beteko direla probablea den unean.

Etorkizuneko salmenten ondorioz kontura egiten diren aurrerapenak jasotako balioaren arabera baloratuta agertzen dira.

### 4.8.- Hornidurak eta kontingentziak

Egoera-balantzearen datan dauden obligazioak, iragandako gertakarien ondorio direnak, sozietateari ondare-kalteak eragin diezazkieketenak eta zenbateko jakinik edota kitatzeko une jakinik ez dutenak, obligazioa kitatzeko sozietateak ziurrenik ordaindu beharko duen zenbatekoaren uneko balioa izango duten hornidura gisa erregistratzen dira egoera-balantzean.

